




BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

573. zkia
XIV. urtea
2006ko maiatzaren 26a

Elgoibarko Mendi Itzulia

**252 lagunek inguratu zuten
gure herria mendiz mendi**



EIBAR

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
Nazioarteko Merkataritza
Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Administrazio Kudeaketa
Merkataritza

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 / Faxe. 943 20 31 96
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

ERMUA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Telekomunikabide eta Informatika-
Sistemak
Informatika Aplikazioen Garapena

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Informatika Sistemen Ustiapena

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57 / Faxe. 943 17 64 50
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

IKASTETXEA BISITATZEKO EGUNA: Ekainak 3 goizeko 11:00etan
AURREMATRIKULA: ekainaren 1etik 7ra



HEZIKETA ZIKLOAK

06-07
Ikasturtea

GOI MAILA

A eta D ereduak

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA

A eta D ereduak

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea-eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

ate irekiak

1 Ekainak
osteguna **18:30**

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako
Ikastetxe Publikoen sareko partaidea



zure ikasketak
zure lanerako

Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 7ra

Informazio gehiago:

Arriaga Auzoa, 1
20870 ELGORRI, Gipuzkoa
Tel: 943 744 132
imh@imh.es

imh@imh.es
943 748 265
www.imh.es





ALAITZ VIVES

Hau da hau! Bele izatetik zozo izaterako metamorfosiak gero eta gutxiago dirau. Zozoak gaurkoan beleari begiratzen dionean gorputzari erreparatuko dio. Non edo non irakurri dut norbaitek esanda, gorputza egoteko balio diguna dela. Inoiz pentsatu izan dut nola sentituko nintzatekeen gizonetzkoaren gorputzean. Inoiz imajinatu al duzu zure burua Alain, emakumezkoarenean? Nola mugituko zinateke? Nola sentitu zureak ez diren eskuak, eta nola ikutu bestearenak? Nolakoak dira besteen begiradak?

Lehengokoan emakume haur eta gizonetzkoentzako (baina bereziki emakumeentzako) arropa denda batean nengoan akeratutako praka pareta ordaintzeko zain. Nire atzean emakumea neukan sei bat urteko alaba txikia ondoan zuela. Neskatoak atzaparrarekin seinalatuz "ama, haunditan halakoxea izan nahi dut". Mostradore osteko paretan lau metro karratuko poster batetik emakume eder bezain erakargarriak goitik begiratzen zigun. Atzera begiratu eta neskatoari keinu egin nion, "baita nik ere polittori". Nik ere top-model izan nahi dut. Pareta, autobusetako markesina eta andamiajeak tapatzen dituzten oihal erraldietatik so, besteen begiradei erreparatuz, nik ere halakoxea izan nahi dut, azal zuriko panpina.

Zozo izatetik bele izateko etengabeko metamorfosi errepikakor honetatik ihesi, arratsalde-pasarako edukiontzi berri bila nabil. Zer sentituko nuke zurean, Alain?

ZOZOAK BELEARI...

«Zer sentituko nuke zure gorputzean, Alain?»

ALAITZ

«Katramila, anabasa, kaosa... desastre hutsa topatuko zenuke»

ALAIN



ALAIN ULAZIA

Metamorfosi ariketa interesgarria Alaitz. Neure gorputza nahiko alferra da Alaitz, ez du larregiko autodisiplina zurrunik.

Katramila, anabasa, kaosa... desastre hutsa topatuko zenuke neure gorputzaren baitan, burmuinarenean, bihotzarenean, bat baitira, bereiztezin, eta denak katramilatuta, matxinenbratuta daude.

Jim Morrisonek, desertuan indio yakien kaktus aluzinagari den peiotearekin izandako esperientziak zerabiltzan nirbanara-edo ailegatzeko, kaosa dela medio oreka izpirituala topatzearen. Gorputz kaotikoak argala behar du izan, neurea edo indio yakiarena bezalaxe, hego haizeak hara hona zirimolatsuetan. Zeu ere argaltxo zara Alaitz, sentitzen duzu zirimolaren bertigo hori?

Psikek, grekeraz tximileta esan nahi omen du, psikea, pentsamendua, tximeletaren hegaldea bezalakoa delako. Eta gorputza psikea da. Beraz, komeni da ondo pentsatzeko dantza egitea. Eta dantza ez baduzu egiten, bertsolari euskaldun eta kantaore andaluziarren gisan zurruna bazara, beste errealitate frekuentzia batzutan egingo duzu dantza, halabeharrez. Eta jada, gorputza ez da izango egoteko balio duena. Eta zelakoa izan nahiko neuke antzeztu ahal dudan emakume batean? Umetako "Pantxika...", neure izeba (ipurdi)gizena" bezalakoa. Abesti hartako emakumea beti izan zait sinpatiko. Edo bestela, erremangodun emakume beltz, jatun, ipurdigizen, abeslari horietako bat.



ARKEOLOGOA DA EMAKUME BATEK AURKI DEZAKEEN SENARRIK ONENA;
EMAZTEA ZAHARTU AHALA, INTERESGARRIA EGINGO ZAIO GIZONARI



Agatha Christie

Iban Zubiaurreri erantzuna

Kaixo Iban: BARRENen egin dizuten elkarriketa irakurri dut eta zure adierazpenek erantzuteko aukera ugari ematen duten arren, zuk esandako hiru adierazpen bakarrik hartuko ditut kontuan.

1. Beste talde batera joan bazina, Realak beste modu batean jokatu lukeela diozu. Bi galdera egingo dizkizut:

a) Beste talde horrek ere libre izan gabe aurkeztuko zintuen edo modu zintzoago batean jokatu luke?

b) Realekoa izan beharrean, beste talde bateko jokalaria izango bazina, Athletic-ek modu berean aurkeztuko zintuen? hau da, askatasun gutunik gabe? Ez al luke Realarekin izan zuena baino errespetu gehiago izango? Gainera, Bazar Orokor egunean.

2. Hau guztia gertatuko zela jakingo bazenu, akaso Realean geldituko zinatekeela diozu. Realak zure jokaera zein izango zen jakin izan balu, egin duen moduan promozionatuko zintuela uste al duzu? Odolkiak ordainetan! Gero harrobia ez dela promozionatzen esaten da. Betikoa.

3. Zure asmoa Gipuzkoako muga gainditu eta Athletic-en jokatzeko dela diozu. Iban, hori babeska eman dizuten klubarekiko eta zaletuekiko errespetu falta da. Zergatik ez zenuen jubilenetan jokatzen ari zinela alde egin? Zeintzuk zi-

ren orduan onak eta txarrak? Oraingo berdinak? Baietz uste dut, baina orduan ez zenuen ezer esaten.

Gomendio xume bat: aurkitu aholkulari berri bat eta eskertu Realari eta zale-tu txuri-urdinei zuegatik egin duten guztia. Bi sententzia dituzu zure kontra, zerbaitegatik izango da. Zure adierazpenekin zure teiltuari harrika ari zara.

J.M.A.B. - 15.320.922R

Larunbatak Elgoibarren = errepresio poliziala

Azkenaldi honetan Elgoibarren larunbatetan presentzia poliziala areagotu egin da. King kongean zipaioen furgoneta bat dago eta Madalako parkean beste bi.

Zipaio batzuk kaleetan barrena dabilta, "patruilatzen", beste batzuk parkean aurpegia estalirik. Denera zenbat egongo dira? Dozena bat pasatxo bai!

Egoera hau luzatzen dijoa, jada hila-bete da hau gertatzen hasi denetik. Baina zertara dator egoera hau?

Badirudi azken aldia "bronka" kopurua handituz zihola eta hori ekiditeko zeudela. Denok badakigu, -toki guztietan bezala-, larunbat arratsaldetan badaudela gazte hauen artean ere "bronka" muntatzera datozenak, hauek gutxiengo

bat dira eta ondo ezagunak. Zipaioek ere ondo dakite nortzuk diren, eta benetan arazoa konpondu nahi izanez gero, irtenbidea erreza izango litzateke. Baina ez! Kaleko presentzia polizial hau beste gazte batzuk identifikatzeko, katxeatzeko..., jarrera probokatzailera erakusteko erabiltzen da.

Zer lortu nahi dute horrekin? Zeintzuk bidaltzen dituzte hona?

Zipaioak Udalak bidaltzen ditu, PNVk bidaltzen ditu herrira, baina PNVk ez du benetako arazoa konpontzerik nahi. Izan ere, beraiantzat errentagarriagoa da larunbatetan gazteak Elgoibarre- ra ez hurbiltzea.

Berriz ere hauteskunderi begira kanpaina egiten ari da PNV, eta Elgoibarren zapatu arratsaldetan girorik egotea ez du nahi. Horrela, herri lasai bat lortu dela esateko. Herri lasaia edo gazteek kabidarik ez duten herria?

Beste behin gehiago PNV alderdiko interesei begira dabil, PNV gazteria zapaltzen ari da bere interes partidistengatik eta horretarako duen amarik errepresiboena erabiltzen du, bere "polizia". Bien bitartean, gazteak errepresio poliziala jasaten ari dira, eta hori gutxi balitz herriko ostalaritza gainbehera dator: taberna asko baitira larunbateko diru sarerengatik bizi direnak.

PNV zertan zabilta? Bozka kopuru batengatik gazteria horrela erabili dezakezula uste al duzu?

ELGOIBARKO EZKER ABERTZALEA


E-POSTA: barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.


[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala **KAZETARIK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBUZITZALEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETAZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Uxue Alberdi, Aitzel Gamendia, Juanita Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Alain Ulazia, Aitz Vives, Koloe KE, Ururzuna, Unai Villena, Aitz Vives **ESABA ZAHARRA** Gatzen Garateren liburuk **IRRIKATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.420 ale **LEGE GORDAILLA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

• Pedro Muguruzako espaloia garbitu dute egunotan, baina konpontzeaz ahaztu dira: “Madalatik La Amistad tabernaraino doan espaloia herriko zaharrenetakoa izango da, 25 urtetik go-
ra izango ditu, gutxienez. Azken egunotan langileak produktu bereziren batekin azera garbitzen ikusi ditut. Ondo dago lustrea ematea, baina dauden zulo guztiak konpontzeko behar handia-
goa dago eta behin hasiz gero azera ganoraz konpondu be-
harko lukete, bada garaia-eta”.

• Santa Klara auzoko haurtzaindegia zena oso egoera txarre-
an dago: “Santa Klarako txanpiñoia lotsagarri dago, dena pin-
tadaz beteta dago aspalditik eta inork ez du txukuntzen. Horre-
la edukitzeko, hobe eraikina bota eta haurrentzako parke polit
bat egitea! Bestalde, badirudi Santa Klarako bizilagunek ez ditu-
gula zergak ordaintzen: lorategiak penagarri daude eta etxe ber-
rien inguruan belarra oso luze dago eta inork ez du moztzen. Au-
zo txukun bat nahi dugu”.



TXALOAK



• Elgoibarko Mendi Itzulian Iñaki Beristainekin gogoratu da mendizale bat: “Elgoibarko Mendi Itzulia egiterakoan Iñaki Beris-
tain izan dut gogoan, urteetan hamarretakoa prestatzen ibili ze-
na. Ez dago gure artean, baina bai gure gogoan”. Bestalde, par-
tehartzaile batzuk Morkaiko Mendizale taldea txalotu nahi dute,
beste behin ere, primeran egin dutelako dena. Oso buelta polita
da, hamarretako bikainak eskaini zizkiguten eta bazkaria ere oso
ondo egon zen. Jarraitu horrela!”.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

komikia

Hil da gero...



Kokoa 060

Gau-eskolatik euskaltegieta 50 urtean

Euskalduntze-alfabetatzea enpresetan:

1970ean topatuko dugu euskalduntze-alfabetatzea eta enpresak lotzen dituen lehen arrastoa. Danobaten bertako langileei euskara irakasten hasi ziren urtea da. 1978an, berriz, Danobatek enpresa euskalduntzeko plan bat zuela ikusi dugu. Bertako zortzi langile alfabetatu ondoren, zortzikote honek arduratu behar zuen Danobat euskalduntzeaz. Baina, planak ez zuen aurrera egin krisi garaia heldu zelako.

81-82 ikasturtean, gau-eskolako irakasleak Rodiara joan ziren proposamen batekin. Gau-eskolara oso langile gutxi animatzen zenez, irakasleak lantegietara joatea zen proposamena. Ondorioz, hamar laguneko taldea osatu zuten. Eskolak lanetik irten ondoren izaten ziren, astean lau egunetan. Hurrengo urtean langileak joan omen ziren gau-eskolara.

81-82 ikasturtean, Danobat eta Sigma enpresetan euskarako klaseak ematen ziren. Sigman talde bat osatu zen eta Danobaten bi, euskalduntzeko zen bat, eta alfabetatzeko bestea. Halere, bi talde hauek urtebete iraun zuten.

98-99 ikasturtean, Rodisako 16 langilek jardun zuten euskara ikasten. Astean 8 ordu ematen zituzten.

2000.ean, Danobaten eta IDEKOn hasiko dira euskarako eskolak ematen, Danobat Taldeak eta Arrasateko EMUNEK, Danobat Taldeko enpresetan euskara gehiago erabiltzeko planaren baitan. Gaur egun bi taldek dihardute euskara ikasten.

Egungo egoerari erreparatuta, gero eta enpresa gehiago dira euskara-planak egiten dihardutenak. 2006an, adibidez, Debabarreneko udalek, EMUN kooperatibarekin batera, plan bat jarri dute martxan bailarako enpresetan euskararen erabilera areagotzeko. Bestalde, IMH ikastetxean ere (enpresa ez izan arren lotura zuzena du inguruko enpresekin) ahalegin berezia egiten dihardute.



ISABEL GUERRA

UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEA

Isabel Guerrak aspaldi hasi zela euskara ikasten aitortu digu, 80. hamarkadan-edo. Irakaslea denez, lanerako beharrezkoa zuelako hasi zen euskaltegian. Lehen perfila atera ondoren, bigarrenkoa ateratzeko borrokan ari da buru belarri.

• **Bigarren perfila atera nahian zabilta?**

Bai. Liberatuta ere egon nintzen bigarren perfila ateratzeko, baina ez nuen azterketa gainditu. La bigarren saiakeran lortzen dudak. Euskara ikasten beharzagatik hasi banintzen ere, une honetan oso gustura joaten naiz klaseetara. Euskaltegian aspaldiko ezaguna naiz eta irakasleekin harreman oso onak ditut. Honez gain, euskaltegitik kanpo egiten diren ekintzak, txangoak... aberasgarriak dira. Nire kabuz, aagian, sekula ezagutuko ez nituzkeen lekuak ezagutzeko aukera izan dut. Azkena, adibidez, Larrun eta Zugarramurdiko haitzuloa. Gauza bat daromat txarto, ordea, azterketak. Oso urduri jartzen naiz eta ez daukat pazientziarik gauzak behar diren

moduan esateko.

• **Zer da zailena zuretzat?**

Hizkuntzak ikasteko trebetasun handirik ez dut, zientziekin moldatzen naiz hobekiago; matematika eta zientzietako irakaslea naiz. Zailena, baina, euskaraz pentsatzea izan da, normalean erdaraz pentsatzen baitut eta euskarara itzulpena egin. Inkontzientiki egiten dugu, eta zaila da hori gainditzeko. Esaera zaharrak eta esamoldeak bameratzea ere ez da bate-re erraza.

• **Euskaltegitik kanpo saiatu al zara euskara ikasten?**

Euskara asko eta asko landu dut, mordo. Idazlanak egin, irakurri edo umeei laguntzen saiatu naiz euskara hobetzen. Semeei aholkuak ere eskatzen dizkiet. Halere, badaukat amaitzeko gogoia.



Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ. ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE! IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Txoritxua»

Nere iritiz, hemen esandakua haurrentzat ipuin bat bezalakua da. Baiña ez da ipuiña, neri gertau jatena baizik. Donostian pasiaran nijuala, pare-parian ikusi nabab txoritxo bat, hegan egin eziñik, hankatxuak zihero lotuta zaukazen.

Eskuetan hartu nabab, baiña ez niozen askatu. Mutil bat hurreratu zan, eta han egon giñan bixok txorixari begira, ezer egin eziñik.

Handik pixka batera esan zidan bere etxera eruango zabala, bere amak eskua zaukala txorixekin.

Handik astebetera ikusi nabab mutil haura, berak ere ezagutu nindun, eta txoriarren gaiñian galdetu nion.

Hiru edo lau egunian etxian eduki zebela esan zidan. Leixuan jarri zebela eta hegan egin zabala. Nora? Ba, bere laguntxuengana.



[GURE BERBAK]

Esaldi osagarri batzuk (3)

Gaurkuan ere esaldi osagarri batzuen erakusgarrixak ekarriko ditugu hona. Hona gaurko esaldixetan agertzen diran atzizki batzuk: -ELAKUAN, -ENIK (ezezko esaldixetan bakarrik), zehargalderak (batzuetan, IA, ABER eta bai bixekin ere, IA ABER), eta abar.

- Errezelua daukat bixar etoriko dala.
- Bixar etoriko ete dan daukat errezelua.
- (lexugia) Hárek ez dakixe barren ze dan, zela hartzen dan hori. Lurrian ipiñi eta bere kasa urtetzen dalakuan.
- Urkiolara juten bagiñan, mundua egin gendualakuan!
- Eta, ez dakitt nik denpora asko egiñ nabab zai, han kalian, noiz amaittuko bere egingizuna.
- (...) baiña hori lehen; oiñ nun zer daquan etxakixat ixa ta!
- Ta gu lelengo bilddurak, hantxe jausiko ete dan!
- Gu bizi geran parajia, guk etxuagu hobia daquanik pentsatzen, zerian, Kanariasen ere!
- Osasunian, txarra daukatenik ezin leike esan; lantzian behiñ eukitzen dittut nere kejatxuak, baiña...
- Aber monagillo nai naban bertan izatia, zergatik eze Bizentek laga egiñ bihar zabala.
- Da honek: ia aber iñok antzik ematen dio-zuen hori montatzeko ze egin bihar izan zan hemen?

Jesus Mari Makazaga

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea • Tel.: 617 988 130

Gaur ostirala, arratsaldeko
19:00etan irekiko dugu.


Zatoz!!!

Ostiraletan egun guztian zehar edukiko dugu irekita (9:00-19:00)



«Nitaz gaizki berba egiten dutenek ez naute ezagutzen edo inbidia didate»

Jose Luis Kortak ez du aurkezpenik behar, no? 1949an Orioko Ortzaikea auzoan jaio zen gizasemea arraunak duen erreferentzia nagusienetako bat da. Castroko La Marinera untziko prestatzailea, bera da Kontxako Bandera gehien irabazi dituenen: 13. Arraunlari, entrenatzaile eta patri lanetan eskuratu ditu; 6 Oriorekin, 1 Lasarterekin, 4 Sestaoko Kaikurekin eta 2 Castrorekin. Deabrua batzuentzat, jainkoa besteentzat, inor ez du hotz lagatzen nortasun handiko kirolari honek.



- **Oriotarra izanik arraunean aritzea gauza naturala izango da, ezta?**

Olidendarrak, nire osaba Bizentiko, Trabuko... arraun munduko izen handiak atera dira ni jaio nintzen Ortzai-ka auzotik (Oriotik 2 kilometroa). Neroni, berriz, aita sanjuandarra eta ama oriotarra... Umetan arraun soinua besterik ez genuen aditu: untzitxo hartu eta uretara joatea zen gure jolasa. Mutilkoskorretan, berriz, Donostiako estropadak ziren urteko irteera bakarra. Beharrean ere itsasoan hasi nintzen (1964tik 68ra). Gaur baino dexente aberatsagoa zen itsasoa, etxe batek bali zuen erdia irabazten genuen urtebetean itsasoan. Arraunean ondo moldatzen nintzela ikusi eta itsasotik atera ninduten.

- **Arraunak esker txarreko kirola dirudi: txirindulariek adina entrenatu, eta bigarren mailako futbolaria arraunlaririk onena baino ezagunagoa da. Zergatik arraunlari?**

Halaxe da, eliteko kirolarien pare entrenatu eta gainerako kirolekin konparazioan huskeria bat kobratzen da. Gainera, ez dut gogoko arraun mundua nola dagoen une honetan, defraudatuta nago. Mutilkoskorra banintz, arrauna erreka pasatzeko ere ez nuke hartuko, igerrian igaroko nuke. Dena manipulaturik dago. Irabazten ari dena izorratu ahal izateko lege berriak bilatzen dituzte. ACT (Asociacion Clubes de Traineras) txapuza bat iruditzen zait. Dozena bat pertsona nahi dutena egiten ari dira, noraezean daramate arrauna eta epaileak boterearen menpe daude. Argia eta zintzoa, tamalez, ez doaz batera; hondradua tontoarekin doa eta argia bandidoarekin.



Martxa honetan, ez du onenak irabaziko, tranposoenak eta zikinenak baizik. Eta hori horrela bada, nahiago dut arraunetik erre-firatzea. Agintean daudenak ez dira euren lana ondo egiten ari. Eta arraun munduan soilik gertatuko balitz, gaitzerdi!

• **Aizu, Jose Luis, Elgoibarren lehorrekak gara. Iskanbila eta polemika Kontxa-k Banderaren parte al dira?**

Iazkoa adibide garbia da. Epaileak estropada balekotzat eman eta lehorrean dagoen jendeak "atraco a mano armada" egin zion Pedreñari. Zergatik joaten da epailea, harek esandakoak ez baldin badu balio? Ezin da ulertu. Polemika lehorrean sortu zen; gizon batzuk busti ez zirelako! Estropada amaieran Oriok eta Pedreñak elkar agurtu zuten, influentzia handiko hiru-garren batzuk sortu zuten iskanbila guztia. Herri guztietan daude familia kuttunak, jainkoen babesak dutenak. Alderantziz pasa izan balitz ez litzateke ezer pasako.

• **Zure nortasuna dela-eta jendeak zutaz aurreiritzi asko al ditu?**

Bai segituan egiten dugu juizioa. Nitaz gaizki berba egiten duten guztiek ezagutzen ez nautelako, edo inbidia didatelako, egiten dute. Gehienei lagundu diet arraun munduan, baina irabazten ere ez diet lagako, klaro! Arraun munduari ez diot eskatzen kartzelan sartzen banaute ateratzeko, baina nik lagundu diedanei noiz edo noiz "koño, Kortak arrazoi dik!" esatea eskatuko nieke ixilik geratu beharrean. Ni holakoa naiz, eta ikusitakoak esaten jarraituko dut, batzuetan hormaren kontra joko dudala jakin arren. Nik adina zigor ez du

beste inork jaso arraun munduan, baina oraindik ez naute inon jokoz kanpo harra-patu, eh?

• **Nondik datorkizu kosta ahala kosta irabazteko griña hori?**

Berdin berdina da irabaztea edo azkena ez izateagatik borrokatzea. Estropada askotan gustura geratu naiz azkena egin ez dudalako, guztiok ez daukagu-eta gobernuko presidente izaterik. Bestalde, irabazi eta gustura geratu ez naizen aldiak ere badira. Azkenengoarekin justu xamar ibili behar zarela badakizu, haren aurretik gertatzeko borroka egiten duzu, eta gaindituz gero, irabaziko bazenu bezala sentitu; hau horrela sentitzen ez duena ez da kirolaria.

«Mutilkoskorra banintz erreka pasatzeko ere ez nuke arrauna hartuko»

• **Jainko eta deabru zara Orion. Nola darama hau Orioko seme batek?**

Pena ez, baina tristea da beraiekin ibili zarenean, ona zinela entzutea eta kanpora zoazenean, eta irabazten badiezu, txarra zara. Orio eta Castro beti ondo konpondu izan dira, ni Oriotik Castrora joan eta Castro irabazten hasi zen arte. Gero

txartu da Korta. Ni beraiekin edo besteekin berdina naiz, ordea. Kirol arloa gaintitzen du gaizki ikusiak, baina hori beste kontu bat da. Pertsonaren kalitatea, errespetua galdu baita kirolean, hori da tristea! Futboleraren ere aurkaria, arbitroa edo dena delakoa iraintzera goaz. Non geratu dira Athletic-Real lehengo anaiarteko derby haiek?

• **Zein da 57 urterekin daukazun sasoi mantentzeko sekretua?**

Beti gustatu izan zait exenplua ematea, besteei eskatzen diedana neronek egitea. Liderik onenak hala behar du. Hori izan da nire sekretu eta arma nagusia.

• **Kontxako 13 Bandera irabazi dituzu. Ilusio gehien egin dizuna?**

Baliteke Castrorekin irabazi nuen estrainekoa 2001ean. Sekula irabazi gabeko leku batera joan eta irabaztea berezia izan zen. Arraunlari eta patroilari jarraitzen jarraitzen irabazi nuen, gainera.

• **Telebista mundua gustuko al duzu?**

Ez da gustuko dudala. Deitu egiten naute eta ezetz esaten ez dakit. Bestalde, telebistan azaltzen dena ezberdina da. "El Conquistador del fin del mundo" saioan agertu dena, esaterako, nik han egindakoa da, bai, baina beste gauza polit asko egin nituen azaldu ez dituztenak. Kapitain txar moduan eraman ninduten ni hara eta hori erakutsi dute. Nik ez dut esango ona edo txarra naizen, ikusi da, naizen bezalakoa naiz. Gauza askotan deskuidatzen naiz, saiatzen naiz ahal dudana hobekien egiten, kalte gutxien egiten, baina gero filmeko gaizkilea banintz moduan ateratzen naiz leku guztietan.

[PROTAGONISTA]



NestorPerez

Trinitateetako Jai Batzordeak estreinakoz antolatu du aurten nagusien tanborrada iragartzeko kartel lehiaketa, eta saria Eibar aldera joan da. Astelehenean egin zen sari banaketa, eta apaimahaiak Nestor Perez eibartarraren lana aukeratu zuen irabazleak. Guztira zazpi lan aurkeztu dira lehiaketara, eta Kultura Batzordetik adierazi dutenez, kalitate oso oneko lanak izan dira. 300 euroko sari bakarria banatu dute. Nagusien tanborrada ekainaren 10ean izango da, gaueko 12:00etan. 220 lagunek hartuko dute parte, Udal Musika Bandarekin batera.

[NOTIZIA]

2012. urterako Deba ibaia garbi egongo dela adierazi dute Jaurlaritzatik

Deba ibaia Gipuzkoako kutsatuena da momentuz, baina Eusko Jaurlaritzatik adierazi dutenez, 2012. urterako ibaia garbi egongo dela adierazi dute. Esther Larrañaga Jaurlaritzako Ingurugiro departamentuko arduradunaren hitzetan, "6 urteko epean Deba ibaiko kutsadurarekin amaitzea aurrakusten dugu". Deba ibaiaren garbiketan depuradoreen garrantzia aipatu zuen. Bergarako depuradora 2007. urterako martxan egotea espero dute. Elgoibar, Deba, Mutriku eta Arasatekoak ere lehenbailehen jarriko dira martxan.

102 milioi euroko inbertsioa

1994. urtean hartu zuen Eusko Jaurlaritzak Deba ibaia garbitzeko ardura, eta



ordutik hona, 65 milioi euro inbertitu dira lan honetan. Datozen sei urteetan 66 milioi eurotik gora gastatzea aurrakusten da, beraz, guztira, 102 milioi euro inguru inbertitutko ditu Eusko Jaurlaritzak Deba ibaiko garbitasuna berreskuratzeko.

[ZENBAKIA]

34

Gipuzkoako Foru Aldundiak 34 autorentzako lekua izango duen aparkalekua egingo du autopistako sarrera ondoan, inguruko herrietako langileek autoa partekatuz. Guztira 5 aparkaleku eraikiko dira A8 autopista inguruan eta 378 auto aparkatzeko tokia egongo da. Zestoa, Zarautz, Aritzeta eta Behobian egingo dira gainontzekoak.

[ARGAZKIA]



Udalak herriko 1.200 metro espaloi garbitu ditu Urasandin, Pedro Muguruzan eta Ubitarte inguruan. Hemaniko Murua enpresa izan da lan honen arduraduna. Zenbait espaloi egoera txarrean zeuden eta garbitzeaz gain, ez labaintzeko produktu bat erabili zuten. Enpresako langileek jakinarazi zuten, produktua patentatuta daukate eta sekretua da. Elgoibarko kaleetan erabiltzeko apur bat moldatu behar izan zuten, baina badirudi emaitza ona lortu zutela. 7 edo 8 urteko iraupena ei dauka.

Elgoibar Biziriketik azokaren gaia desitxuratu duela esan du alkateak



Azken hilabeteak isilik eman baditu ere, oraingoan Marivi Agirregomez-korta alkateak Elgoibar Bizirik herri plataformakoek egindako adierazpenei erantzun die prentsa ohar batekin. Bere esanetan, epaitegietako gatazka mantentzen dutenak ostegunetako azokako merkataritza gutxi batzuk dira: “pasa den abenduan jarduera judizialak eragiteaz salatzen gaituzte, 2006ko urtarrila eta martxoan artean bost merkataritza epaitegietan gure aurka egin dutenean, eta azken hilabeteotan Udalak ez duenean ezer berririk salatu”.

Egoera desitxuratuta

Alkatearen ustez, Elgoibar Biziriketik egoera berriro desitxuratu du: “oso serioa iruditzen zait Elgoibar Bizirik taldea gure herriaren lasaitasuna hausten saiatzea berriz ere, errespeturik gabeko eta adierazpen demagogikoen bitartez”, era berean, “Elgoibar Biziriketik mesede gutxi egiten dio gure udalerriko bizikidetzari gauzak berriz ere itxuraldatuz”. Azkenik, jarrera honekin herriari min handia egiten ari direla adierazi du: “batzuen jarrera demagogikoa eta arduragabea udalerriari diru asko kostatzen ari zaio”.

[MOTZ-MOTZIAN]

Elgoibarko Topagunea

Herriko zenbait taldek Elgoibarko Topagunea osatu nahi dute. Helburua, topagune bezala, euskal presoan Euskal Herriratzearen eta beraien eskubideak betetzearen aldeko lanean ahalik eta herritar gehienaren sostengua jasotzea da. Era berean, Ibaetakoko Manifestua bezala aurkeztu zen dokumentua gizarteratzea nahi dute. Dagoeneko herriko 20 taldek eman die babes. Herritar guztiei Topagune honetan parte hartzeko deia luzatu nahi diete. Topagunearen aurkezpena ekainaren 3an egingo da, baina aurrez beste ekitaldi batzuk ere egingo dira, eta herritarren partaidetza eskatzen dute. Besteak beste, hitzaldiak, erakustekak, ekitaldi politikoak eta zine emanaldiak izango dira.

Juan Carlos Perezen kontzertua

Juan Carlos Perezen kontzerturakob sarreren irabazleak Idurre Ramos eta Itxaso Gonzalez izan dira. Kontzertua bihar izango da, 22:00etan Azkoitiko Baztartzo aretoan. Bernardo Atxaga gonbidatu berezia izango da.



Debabarrenako industria gida

Debegesa Debabarrena eskualdeko industria gida eguneratzen ari da. Gida hau debegesako webgunean jarriko da ikusgai edonork kontsultatu ahal izateko. Debegesatik enpresei dei egiten zaie euren datuak emateko. Interesatuak 943 820110 (Igor) telefonora deitu dezakete.

Elgoibar eta Eibar UHF seinalea jasotzen lehenengoak



Kable bidezko eta telebista digitalaren aroan gauden honetan, oso jende gutxi gogoratuko da UHF kanala martxan jarri zen eguna. 1980. urteko apirilaren 29a izan zen. TVEk bere bigarren katea estreinatu zuen, eta Debabarrenako eskualdean Elgoibar eta Eibar izan ziren seinale hori jaso zuten lehenengo herriak, Karakateko antenari esker. Bi telebista kate besterik ez zeuden orduan, eta programazioa ere oso murrizta zen. Gaurko ikuspegitik jende askorentzat sinestezina izango da.

Inkesta

66.200 gazte dago lanik gabe Euskal Autonomia Erkidegoan

Nolako etorkizuna ikusten diozu gazteen lan egoerari?

NEREA ARENAS

Administraria

35 urte



“Langabezia beti egongo da, baina nik uste dut nahi duenak lana aurkitzen duela. Norberak ikasitakoa ez izan arren, lana badago eta aurera egin daiteke.”

XABIER DEL BARRIO

Kontrol numerikoa

25 urte



“Oso txarra. Gaur egun enpresarioaren alde dago dena, eta langileentzat ez dago egonkortasunik. Lan asko gainera, kanpoan egiten da merkeagoa delako.”

MAIDER SANTOS

Ikaslea

27 urte



“Txarra. Tesia egiten ari naiz eta bukatutakoan ez dakit zer egingo dudan. Nire ingurukoak ere antzera daude. Ikaske-ta maila altua izan arren, lana aurkitzea zaila da.”

CRISTINA LORENZO

Peoi espezialista

31 urte



“Gero eta okerragoa. Gure enpresan 100 langile bota dituzte kalera, gero eta lan gutxiago dago. Gainera, soldat-ak oso bajuak dira eta bizi-modua oso garestia.”

[BAI ala EZ?]

Iritsiko al dira ezkontza zibilak erlijiosoen parera?

BAI %70

“Desagertu ere egingo dira halako batean! Inork ez du elizan sinisten, baina gero denak joaten dira elizara parafemalia guzti hori egitera. Kriston kontraesana da!”

EZ %30

“Ez dut uste. Gaur egun jendea ez da ezkontzen elizatik sinismenagatik, zeremoniagatik baizik, eta ezkontzen direnen parte handi batek zeremonia hori du gustuko.”


Datorren asterako.... Jaurlaritzako Osasun Sailburuak heroinaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eskatu du.
Heroina sendagarri moduan erabiltzearen aldekoa al zara?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

[GOMENDIOA]

Oinetako egokiak: Oinekin aukeratu, ez begiekin

Gure organismoari oinarria eta euskarria ematea da oinen funtzioa, baina mugitzeko eta gelditzeko, ekintza erritmikoak egiteko, eta orekari eusteko ere erabiltzen ditugu. Oso organo espezializatua dugu, beraz, eta bereziki zaindu eta arreta eskaini behar zaio. Eta oinetako egokiak erabiltzea da horretarako lehen urratsa.

Oin bakoitzak bere oinetakoa

Hiru oin mota bereizten dira:

- Oin greziarra: behatz lodiararen ondoren, 2. izaten da luzeena eta 3.-ak ia tamaina bera izaten du; 4. eta 5. txikiagoak izaten dira. Oin mota honetan

pisua hobeto banatzen da oinaren aurreko aldean.

- Oin karratua: behatzak berdintsuak dira guztiak eta altuera berean daude.
- Oin Egiptoarra: behatz lodia izaten da luzeena eta gainerako guztiak txikiagoak, bata bestearen atzetik. Arrisurik gehien duen oin mota da.

Oinetako desegokiak erabiltzearen ondorioak

Takoi altua eta punta zorrotzeko oinetakoa erabiltzea eraso latza da oin eta zangoentzat. Hona ondorio batzuk:

- Juanikoteak
- Oin azpiko mina

- Behatzen deformazioak: erpe eta mailu erako behatzak
- Behatzetako kailuak, oinetakoaren igurtzi eta presioak eraginak, edo behatzen arteko kailuak.
- Sesamoiditisa: sesamo-hezurren (lehen metatarsianoaren buruaren azpian kokaturiko hezurtxo biribila) inflamazioa.
- Akilesen tendoiaren handitzea, bikieta minak, edo baita belaunetakoa ere, gainkargaren eraginez.
- Zainetako zirkulazioa okertu egiten da, odol-ponpaketa zaildu eta hankak handitu, edemak eta barize txikiak agertzen dira.

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dhama Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 beheka (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 beheka (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 beheka

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

▶ **MARIA INES SERRATE** **BOLIVIA [HEGO AMERIKA]**

«Hondartza gertutik ikustea izugarri gust

URTEBETE PASA DARAMA MARIA INES SERRATEK ELGOIBARREN. 20 URTEKO GAZTE HAU TURISMOA EGITERA ETORRI ZEN: MADRILERA IRITSI ZEN LEHENENGO, GERO PORTUGAL ALDERA JOAN ZEN FATIMAKO AMA BIRJINA EZAGUTZERA, ETA HANDIK EUSKAL HERRIRA ETORRI ZEN. BERE BIDAIA LUZATU EGIN DA PIXKAT. OSO GUSTURA DAGOELA KONTATU DIGU, BAINA BERE ASMOA ETXERA ITZULTZEA DA.



▶ **Zer moduz Elgoibarren?**

Hasieran gogorra egin zitzaidan, aldaketa handia izan zen niretzat. Poliki-poliki ohitu naiz hemengo girora eta orain gustura nago. Jendeak oso ondo hartu nau, ez dut arazorik izan, oso jatorrak dira denak.

▶ **Zer dela-eta erabaki zenuen zure herrialdea uzteko erabakia?**

Egun batetik bestera hartu nuen erabakia. Buruari hainbat buelta eman ostean, gurasoei esan nien Espainia aldera nihoala. Nire anaia bikia hemen zegoen ordurako, eta berarengana etorri nintzen.

▶ **Anaiak animatu zintuen hona etortzera?**

Ez, guztiz kontrakoa. Hemen ez nintzela ondo moldatuko esaten zidan, ez nintzela ohituko, familiakoak faltan botako nituela... baina berdin zitzaidan. Ezin nuen Bolivian jarraitu eta etorri egin nintzen.

▶ **Nola hartu zuten gurasoek zure erabakia?**

Pena handia hartu zuten, amak batez ere. Berak ere etortzea nahi zuen. Baina berak dagoeneko, lan asko egin du bere bizitzan, deskantsua behar du eta orain guri tokatzen zaigu gurasoei laguntzeko lan egitea. Nire ama irakaslea da eta bere lana utzi ahal izateko, dirua irabazi behar dugu. Gainera, nire amona oso nagusia da, gaixorik dago eta nire amak zaindu behar du. Nire ama ezin da hona etorri.

«Hiruzpalau urte
barru etxera itzultzea
da nire nahia»

▶ **Oso desberdinak al dira zure herrialdea eta Elgoibar?**

Bai. Santa Cruz herrialdekoa naiz eta oso desberdina da. Han dena banakako etxeak dira eta hemen erakuntza handiak dira gehienak. Niretzako hura politagoa



da. Gainera, ez daukazu bizilagunik eta zure etxean nahi duzuna egiteko aukera duzu: musika entzun, zarata atera, festak antolatu... hemen bizilagunak aterik ate bizi dira eta errespetatu egin behar dira. Bestalde, hango klima ere nahiago dut, oso trpikala da.

► **Pobrezia handia al dago han?**

Ez nuke esango pobrezia handia dagoe-neik, falta dena lana da, oso lan gutxi dago, eta dagoen apurra oso gaizki ordaindutako lana da. Politikoek gauza asko prometiitzen dituzte, baina gero ez dute esandakoa betetzen. Gero eta jende gehiago joaten da kanpora lanera eta dirua irabaztera, ez gara kapritxo ez etortzen hona, beharrak derrigortzen gaitu.

► **Zer botatzen duzu faltan?**

Senideak. Izugarri gogoratzen naiz beraienekin. Abenduan bisitan joan nintzen eta hilabete eta erdi egin nuen bertan. Ez nuen beriz etorri nahi, baina azkenerako aspertu egin nintzen. Hango bizimodua lasaiegia da eta orain hemengora ohituta nago. Nik hemen ikasi dut lan egitea zer den.

► **Non egiten duzu lan?**

Sigma jatetxean nago sukaldari laguntzaile moduan. Etorri nintzenetik bertan ari naiz, eta nire bigarren familia da. Hasieran ez nekien ezer egiten, eta orain oso ondo moldatzen naiz sukaldean.

► **Zer izan da gehien gustatu zaiuzuna?**

Turismo apur bat egiteko aukera izan dut eta kostaldea izugarri gustatu zait. Han ez daukagu itsasorik eta gertutik ikus-tea izugarria da. Telebistatik ezagutzen nuen hondartza. Deba asko gustatu zait.

Bestalde, oso ondo jaten da hemen, "palla" asko gustatu zait.

► **Zerk harritu zaitu?**

Jendeak oso altu hitz egiten duela, harrigarria da, hasieran beti haserre zuedela uste nuen. Bolivian askoz leunagoak gara. Dirua nolako erraz gastatzen den ere harrigarria da. Irabazi bezain erraz gastatzen da.

► **Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**

Bolivian, nire herrialdean, nire etxekoekin ikusten naiz etorkizunean. Urte batzuk egingo ditut hemen, hiru edo lau, baina ez daukat betirako gelditzeko asmorik. Diru apur bat lortzen dudanean, etxera itzultzea da nire ilusioa. Ostalaritza ikasketak hasi nituen Bolivian, hiru urte falta zaizkit karrera amaitzeko eta bukatzea gustatuko litzaidake.

BOLIVIA

- **Hiriburua:** La Paz
- **Azalera:** 1.098.581 km²
- **Biztanleria:** 8.328.700 (2000)
- **Dentsitatea:** 7,6 km²ko
- **Bizi itxaropena:** 64 urte
- **Erligioa:** Katolizismoa
- **Hizkuntza:** Espainola, quechua eta aymará.



GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

AHOZKOTASUNA BERTSO



GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAK GAZTETXOEN ARTEAN AHOZKOTASUNA ETA IRUDIMENA GARATZEKO PROIEKTU BAT JARRI ZUEN MARTXAN DUELA LAUZPABOST URTE. ESKORIATZA ETA ARETXABALETAKO ESKOLETAN IZAN ZUEN HASIERA EGITASMO HONEK, ETA DUELA BI URTE IRITSI ZEN ELGOIBARRERA. UDALAREN LAGUNTZAZ, ELGOIBAR IKASTOLA ETA HERRI ESKOLAKO IKASLE MORDOA ARI DIRA BERTSOGINTZAREN BITARTEZ AHOZKOTASUNA ETA IRUDIMENA LANTZEN. ASTEAZKENEAN KURTSO AMAIERAKO BERTSO SAIOA EGIN ZUTEN HERRIKO ANTZOKIAN, ETA BATEK BAINO GEHIAGOK BERTSOGINTZARAKO DOAIK DITUZTELA ERAKUTSI ZUTEN. JOKIN URANGA BERTSOLARI AZPEITIARRA DA HONEN ARDURADUNA ETA GAURKOAN BERAREKIN HITZ EGIN DUGU.

Gaitasun komunikatiboa bultzatzea

Jokin Urangak argi eta garbi azaldu digu egitasmo honen helburua: "umeek ahozkotatasuna lantzea zen hasierako helburua, eta honekin batera, bertsolaritza mundua ezagutzea. Euskal kulturaren bamean pisu inportantea du bertsolaritzak eta gaitasun komunikatiboa bultzatzen laguntzen du". Bi urte daromatza azpeitiar gazte honek Elgoibarko ikasleekin lanean, eta emaitza oso onak lortu dira esan digu: "Gehienek badakite bertso bat zer den, baina badaude batzuk bertso-gintzari buruz ezer ez dakitenak, eta kurtsoa amaitzerako denak dira bertso bat egiteko gai".

8 gelatan banatuta, 120 ikasle baino gehiago ari dira Gipuzkoako Bertsozale Eskolak martxan jarritako egitasmo honetan parte hartzen. 10 eta 12 urte bitarteko 63 gazte daude ikastolan eta 60 Herri Eskolan: "Errima jolasen bidez lantzen ditugu bertsoak, eta bide batez gainontzeekin komunikatzen ikasten dute". Jokin Urangak esan digunez, oraindik gazteak diren arren, batzuk oso ondo moldatzen omen dira bertsoan: "Goiz da esateko, baina errima jolasetan batzuk oso ondo moldatzen dira. Gustatzen bazaie, bertsolari izateko garaiz daude oraindik. Ni 14 urterekin hasi nintzen bertso eskolan".

BARREN

LARITZAREN ESKUTIK



Bertsolaria egin egiten da

Betiko galdera: bertsolaria jaiola egin egiten da? Jokinek esan digunez, bertsolari izaten ikasi egiten da: "Norberak daukan berezko grazia eta txispa oso garrantzitsuak dira, baina bertsolaria ez da jaiotzen, ikasi egiten da bertsolari izaten. Ikasitako hori praktikan jartzeko erraztasun gehiago edo gutxiago izan daiteke, noski. Baloi bati ostikadak ematen ere denok ikasi dezakegu, baina gero, bakoitzaren abileziaren arabera, bata lehenengo mailara iritsiko da eta bestea hirugarren mailan geldituko da".

Urte amaierako jaialdia

Urte osoan eginiko lanak ez du askorako balio inork ikusten ez badu. Beraz, ikasleek ereindako haziaren fruitua ikusteko, eguaztenean egin zuten kurtso amaierako bertso jaialdia Herriko Antzokian. Ikasle guztiak abestu zuten: "Gai konkretu batzuk lantzen dira, bakoitzak zenbait

bertso prestatzen ditu jende aurrean abesteko". Eta jende aurrean abesteak ez al du lotsarik ematen? "Hasieran bai, baina hori ikasi egiten da. Niri hasierako urteetan demaseko beldurra ematen zidan, urduritasuna zen batez ere. Baina hori ere beharrezkoa da, bestela ez da ondo kantatzen, kezka horrek norbere buruari gehiago eskatzen dio".

Jokin Uranga, primerako irakaslea

Jokin Uranga Azpeitiko bertsolari berria da; Lizaso, Lazkano edo Agirre bezalako bertsolarien ondoren sortutako bertsolaria. Betidanik izan du Azpeitiak bertsozale fama, baina Jokinek ez dio horri garrantzia handiegirik ematen: "Herri bakoitzari zaletasun bat jartzeko ohitura handia daukagu. Azpeitian bertsolari nagusi asko dago, baina urte mordo pasatu dira beste bertsolari gazte bat atera arte, 20 urteko eten bat egon da". Jokin Uranga onen artean izan genuen Euskadiko Txa-

pelketa Nagusian. Esan digunez, bere buruari jarritako helburua lortuta itzuli zen etxera: "Finalerdietara pasatzea zen nire helburua, banekien lortzen ez banuen ez zela ezer pasatuko, baina helburuak markatzen diudanean askoz hobeto egiten dut lan eta gauza txukun bat egiteko helburu hori jarri nion nire buruari". Finalerdietara iritsi zen bai, eta finalean sartzeko puntu bat besterik ez zitzaion falta izan: "Behin finalerdietara pasatuta, banekien finalera iristea ia ezinezkoa zela, beraz, ahal nuen hobekien egin nuen".

Aurrera begirako beste helburu bat ipini dio Urangak bere buruari: "Plazarik plaza ibiltzea gustatuko litzaidake. Tristea da, baina gaur egun bertsolari bat zenbat plazatan ibiliko den definitzen duena Txapelketa da". Batzuk udan oporrak izaten dituzte, baina bertsolariek orduan izaten dute lan gehien. Aurtengo udan, hainbat herritako jaietan Jokin Uranga bertsotan ikusteko aukera izango dugu.

[IKAS KONTUAK]

Gurasoen Eguna Pilar Ikastetxean

Pilar Ikastetxean Gurasoen Eguna ospatuko da bihar, maiatzak 27. Marrazki lehiaketan parte hartu dutenen irudien erakusketarekin hasiko da eguna. Goizean zehar tailerrak, gaztelu puzgarriak, ikasle eta gurasoen arteko futbol partidua eta tarta txapelketa izango dira. Bazkal ostean, sari banaketak egingo dira, bingoa, mus txapelketa eta haurrentzako jolasak ere izango dira. Bestalde, gaur arratsaldean DBH 4. mailako ikasle- en agurra izan dute.



"Euskal Herria zuzenean" kontzerturako laguntzaileak

Urtero Iparraldean antolatzen den "Euskal Herria zuzenean" kontzerturako laguntzaileak behar dira. Ekainaren 30etik uztailaren 2ra arte izango da jaialdia Iduze-Mendin. Interesatuak Elgoibarko Izarran eman dezakete izena (943 74 16 26, Nagore edo Nerea). 18 urte beteta edukitzea beharrezkoa da.

Kirol-abentura Gaz-Trekin

Gaz-T Aisialdi Taldeak uztailako ostiraletarako 3 kirol-abentura ekitaldi antolatu ditu. Hilaren 7an Paintball saioa izango da lasturren (20 euro), hilaren 14an kanoa eta surf egiteko aukera izango da Urdaibain (50 euro) eta hilaren 21ean Beigorri abentura parkera egingo dute irteera (20 euro). Hiru ekintzetan izena emanez gero, 50 euro bakarrik ordaindu behar dira. Informazio gehiago Elgoibarko Izarran: 943 74 16 26 (Nagore).

Elgoibarko ikasleek Deba ibaiaren egoera hobetzeko proposamenak egin dizkiote Udalari



Ohiko bilkurekin zerikusi handirik ez duen plenoa izan zen joan zen astean udaletxeko pleno aretoan. Eskola Agenda 21 programaren baitan, herriko ikastetxeetako ikasleak izan ziren bilkura honetako protagonistak. Ikasle hauek ura eta Deba ibaiaren gaia landu dute eskolan. Gai honi buruz oso arduratuta daudela erakutsi zuten, eta Migel Anjel Mujika Hirigintzako arduradunak, hainbat eta hain-

bat galdera erantzun behar izan zituen. Bestalde, uraren kontsumoa gutxitzeko eta Deba ibaiaren egoera hobetzeko hainbat proposamen egin zituzten. Besteak beste, jendeak ibaia errespetatzeko panel informatiboak jartzeko eskaera egin zuten, edota ibai inguruan zakarrontzi gehiago jartzeko, inork ez dezan zaborrik errekara bota. Udaleko arduradunek gogoan hartu zituzten esandako guztiak.

Ikasle ingelesek BARREN bisitatu zuten



Litherland Highschool institutuko ikasleak Elgoibarren izan dira 15 egun inguru. Turismo apur bat eginez, gure herria eta Euskal Herriko hainbat leku ezagutzeko aukera izan dute. Besteak beste, Bilbo, Donostia, Gernika eta Gasteizko parlamentuan izan dira. Joan zen astean BARREN bisitatu zuten. Aldizkariari buruzko hainbat galdera egin zituzten, eta gure lanaren funtzionamendua erakutsi genien. Ekainaren 23an, Elgoibar Ikastolako ikasleak joango dira Ingalaterra aldera.

Giro bikaina Ikastolako jaialdian

Joan zen maiatzaren 20an Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleen jaialdia izan zen. Ikastolako frontoia jendez gainezka zegoen. Etxeko txikienek sekulako ikuskizuna eskaini zuten, eta batek baino gehiagok artista sena daukatela erakutsi zuten. Hollywood-eko izarrak balira moduan, argazki eta bideo kamerarik ez zen falta izan. Giro bikaina izan zen Ikastolako frontoian.



ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

Sekula baino partehartzaile gehiago, 252 lagun mendi itzulian

Partaidetza errekor berria ezarri zuten Elgoibarko Mendi Itzulian parte hartu zuten 252 lagunek. Azken 3 urteetan partaideen kopurua finkatu dela dirudi, hiruretan 230 mendizaletik gora ausartu baitira Elgoibar inguratzen duten tontorrek elkar lotzera. Haizea izan zen eguneko protagonista, baina mendizaleek mendian ibiltzeko eguraldi aproposa izan zuten. Morkaiko Mendizale Elkartek Merkatu Plazako azken solairuan prestatutako bazkariarekin eman zioten egunari amaiera partaide gehienek. Itzulia bukatzen azkenak 16:15ak aldera iritsi ziren bertara.



ESKUBALOIA

Urnobitzak Euskal Ligara igotzeko partida jokatuko du zapatuan



Urnobitzak kadete mutilen eskubaloia taldeak mailaz igotzeko aukera paregabea izango du zapatu honetan, hilaren 27an, Olaizaga Kiroldegian Leioako Askartza taldearen aurka jokatuko duen partidaren (17:30). Irabaziz gero, datorren urtean Euskal Ligan jokatuzko txartela eskuratuko lukete. Hau dela-eta, Sanlo taldeko arduradunek zaletuen laguntza eta animoak ezinbestekoak izango direla adierazi dute, eta herritarrei, kiroldegira igotzeko

deia luzatu. Kadeteek irabaziko balute, gainera, Pneumax, jubencil mutilen taldeak, ere mailaz igotzeko aukera izango luke, bi taldeen emaitzak batzen baitira txapelketa sistema honen arabera. Jubenilek 19:00etan jokatuko dute, hauek ere Askartza taldearen aurka. Giroa pixka bat berotzeko eta urte guztian egindako lanaren eskerretan, Lojantzi senior nesken taldeak Euskal Ligako txapeladuari dagokion kopa jasoko du kadeteen partidua hasi aurretik.

Udalak eta Ongarrik kirol-argazkilaritzari buruzko lehiaketa antolatu dute

Elgoibarko Udaleko Gaztedia eta Kirol Sailek eta Ongarri elkarteak kirol-argazkilaritzari buruzko I. Lehiaketa sortu dute. Partehartzaileek kirol jardueraren bat erakusten duen edozein irudi aurkeztu ahal izango dute, paperezko formatuan, koloretan nahiz zuri-beltzean. Irudiak edozein prozedura edo teknikaren bidez tratatzeko aukera izango da eta tamaina 54 x 30 zentimetrokoa izan beharko da. Partehartzaile bakoitzak gehienez 4 irudi aur-

keztu ahal izango ditu. Sarietara dagokienez, berriz, 950 euro banatuko dira, 200 euro herriko argazki onenarentzat izanik. Parte hartu nahi duten guztiek, Olaizaga kiroldegian aurkeztu beharko dituzte lanak, uztailaren 21a baino lehen. Sari banaketa, abuztuaren 23an egingo da Kultur Etxean. Sari banaketa egunean bertan inauguratuko da aurkeztutako argazkiekin osatutako erakusketa. Irailaren 15era arte izango da ikusgai Kultur Etxeko sotoan.



Elgoibarko Hiria Saria txirindulari lasterketa domekan

Maiatzaren 28an, domeka honetan, jokatuko da XXVI. Elgoibarko Hiria Saria txirindulari proba. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatzen duen lasterketan jubencil mailako txirindulariak arituko dira eta 10:30ean aterako dira Plaza Handitik.

Joseba Igartuari omenaldia

Haundik eta Arenasek zapatuan (18:00) Mintxetan jokatuko duten partida hasi aurretik, denboraldi amaieran jokalarizateari lagako dion Joseba Igartua jokalaria omenduko dute klubak eta zaletuek. Jokatzeari lagako dion arren, klubari lotuta jarraituko du Haundiren historiara pasa den jokalaririk.

Borja Diez Gipuzkoako txapelkun 600 metroan



Mintxeta Atletismo Taldeak bi ordezkari izan zituen joan zen asteburuan Eibarko Unbeko Instalazioetan jokatutako infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan. Borja Diezek 600 metroko lasterketan parte hartu zuen eta bera izan zen bizkorrena minutu bat eta 42 segunduko denborarekin. Lortzen duen Gipuzkoako bigarren txapela da honakoa Borjarentzat, duela bi urte, alebin mailan zebilela, 2.000 metrotako lasterketan nagusitzea lortu baitzuen Zumarragan. Raket Avilak ere parte hartu zuen Eibarran, eta 8. postuan sailkatu zen 80 metrotako lasterketan.

ESKU PILOTA

Elgoibarrek agur esan dio Herriarteko Pilota Txapelketari

Pilotari elgoibartarrek Herriarteko Txapelketan hasi zuten ibilbidea amaitu da: Arrasateko taldeak kanporatu ditu herriko pilotariak. Joaneko partidetan 1 eta 2 galdu ostean, itzulerakoetan ere emaitza berdina errepikatu da; 2 eta 1 arrasatearren alde. Hortaz, 4 eta 2 izan da azken emaitza. Elgoibarrek duintasunez esan dio agur entzute handiko txapelketari. Lehen kanporaketan Lazkao pilotariak kanporatu zituzten eta oraingoan jubencil mailako bi norgehiagokak irabaztea lortu dute. Bestalde, Debarroko Txapelketak aurrera darrai, eta hemen, aste-buru honetako emaitzak askoz hobekak izan ziren Lagunak Pilota Eskolako pilotarientzat. Kadete, jubencil eta nagusiek garaipenak lortu zituzten Eskoriatza eta Bergarako pilotarien aurka. Lagunak Txapelketa ere martxan da. Benjamin, alebin eta infantil mailako pilotari gaztetxoek Plaza Handian jokatuko dituzte partidak ekain bukaerara arte.



Wingsun ikastaroa emango du munduko maisurik onenetarikoak



Victor Gutierrez, munduko wingsun maisu onenetarikoak, txinar jatorriko arte martzial honen inguruko ikastaroa eskainiko du datorren martitzenean, maiatzaren 30ean, Olai-zaga Kiroldegian (18:30). Pello Plaza, Elgoibarko Wingsun Eskolako arduraduna, Victor Gutierrezen ikaslea da, eta honakoa, maisua Elgoibarrera ekartzen duen hirugarren aldia izango da. Ikasleek Victor Gutierrezen jakinduria bertatik bertara jarraitzeko zortea izango dute eta baita graduz igotzeko aukera ere. Halere, edonor joan daiteke wingsuneko legenda hau zuzenean ikustera.

Josune Bereziartuaren ikusentzunezkoa ekainaren 2an

Josune Bereziartua eskalatzailerik ezagunak, bere momentu onenen bilduma bat erakutsiko du datorren barixakuan, ekainaren 2an, Musika Eskola-k auditorioan eskainiko duen ikus ent-

zunezkoan (22:00). Kutxaren eskutik eta Morkaiko Mendizale Elkartearen laguntzarekin iritsiko da munduko emakumezko eskalatzailerik onena Elgoibarrera.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

UPV 0 - Haundi 0 (3. maila)

Umieta 2 - Elgoibar 3 (Kad.)

Aurrera Ondarroa 4 - Elgoibar 0 (Inf A)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle 28 - Egia 25 (Senior mut.)

Cometel 31 - Urola 16 (Jub. nesk.)

Udarregi 19 - Olasa 17 (Inf. nesk.)

Pagoaga 18 - Aiala Zarautz 38 (Kad. nesk.)

Corazonistas 37 - Umobitza 38 (Kad. mut.)

Corazonistas 14 - Pneumax 21 (Jub. mut.)

Lojantzi 19 - Aiala Zarautz 21 (Sen. nesk.)

BOLOAK

Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa

Soraluzeko Txapelketa

1- Xabier Loiola 9 txirlo (San Migel)

2- Bitor Nuñez 8 txirlo (Txurruka)

3- J. Larreategi 6 txirlo (Asola Beri)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Arrasate 22 - Elgoibar (Arrib./Liz.) 9 (Kad.)

Arrasate 8 - Elgoibar (Ariz./Txurruka) 22 (Jub.)

Arrasate 22 - Elgoibar (Iriondo/Loiola) 14 (Nag.)

Debarroko Txapelketa

Lagunak (Liz./Salegi) 22 - Eskoriatza 2 (Kad.)

Lagunak (Portu/Amiz.) 22 - Bergara 14 (Jub.)

Lagunak (Ula./Ansola) 22 - Bergara 16 (Nag.)

Lagunak Txapelketa

Montes 17 - Larrea 18 (Benj.)

Zubiaure 9 - Gurutzaga 18 (Benj.)

Amesti 18 - Ruiz 16 (Aleb.)

Iriondo 18 - Rojo 7 (Aleb.)

Iriondo 18 - Bereziartua 2 (Aleb.)

Bollar 18 - Ruiz 17 (Benj.)

Gurutzaga 18 - Agirrebeña 8 (Benj.)

Ibarluzea 18 - Plazaola 8 (Inf.)

Arizabalaga 18 - Gabilondo 9 (Inf.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 27

11:30 Lagun Onak - Urola (Neska F-8)

18:00 Haundi - Arenas (3. maila)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 27

17:30 Umobitza - Askartza (Kad. mut.)

19:00 Pneumax - Askartza (Jub. mut.)

Domekia, 28

11:00 Pagoaga - Groseko (Kad. nesk.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai Madalan. 2 logela, garajea eta trasteroa.

678 93 92 41

▶ Etxea salgai Sigman. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Egoera onean.

607 253 909

▶ Pisua salgai Merkatu Plaza alboan. Logela bat, egongela, komuna, sukaldia eta ganbara itxia.

Bizitzera sartzeko moduan.

943 74 15 96/677 389 601

▶ Pisua salgai Errosario kalean. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa.

943 740265

(gavez deitu)

▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro (28 milioi pezeta).

943 74 84 48/636 57 11 11

▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela. Guztiz berritua.

630 28 63 63

ALOKAIRUA

▶ Gasteizen pisua osatzeko lagun bat behar da. Ondo kokatua, egoera onean.

945 27 42 83

(mezua laga)

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan.

943 53 17 54

▶ Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador".

Sukaldia, egongela, bi komun, 3 logela, 40m²ko terraza.

655 723 678

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan.

638 716 987

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Ermuarabide 7an garajea salgai. **699 45 29 98**

▶ Lokal bat alokatzen da erdialdean. 80m². Hutsik.

646 161581

[AUTOAK]

▶ Wolswagen Golf TDI autoa salgai. 102 zaldi. 2005ekoa.

22.000km. Egoera oso onean.

2007ko maiatzera arteko bermea.

665723540/615765515

[BESTELAKOAK]

▶ Mendiko bizikleta salgai. Canondale. Egoera onean.

Rebisioa pasatuta. Karbonozko manillara.

658 74 32 49

▶ Kotxeko llantak saltzen ditut. 17 pulgadatakoak. Egoera onean.

665 72 62 71

▶ Hozkailua eta berogailua salgai. Egoera onean.

695 711 836

▶ Martxan dagoen janari denda saltzen da San Bartolome kalean.

943 74 12 26

▶ Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilteraza.

10km/orduko. Gurpil sendoak. Iraulgaitza. Prezioa adosteko.

635 73 58 15

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska gaztea lanerako prest. Uztaitetik aurrera. Garbiketa lanak, kamarera, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna.

666 032715

• Emakumea nagusiak edo gai-oxak zaintzeko prest. Egunez edo gavez. Orduka ere bai. Esperientziaduna.

943 17 28 96

(Mertxe)

• Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest.

686 23 47 86

• Emakumea garbiketa lanetarako prest. Lantegiak, lokalak, etxeak...

639 42 34 93

• Mutila edozein lan egiteko prest: obrak, mekanika lanak...

685 785 921

• Emakumea lanerako prest: garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzen.

943 74 03 67

• Mutil gaztea edozein lan egiteko prest.

685 730 604

• Neska gaztea lanerako prest: kamarera, umeak edo nagusiak zaintzen...

638 716 987

(Patricia)

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintu edo garbiketa lanetarako prest.

699 609 190

• Bi neska lanerako prest: umeak zaintu, garbiketa lanak...

609 965 932/

943 53 18 35

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintu edo garbiketa lanetarako prest.

639 020 180

• Neska umeak zaintu eta garbiketa lanak egiteko prest.

626 57 17 07

• Emakumea orduka erropak plantatzen lan egiteko prest.

943 03 36 05

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka.

943 03 36 05

ESKAINITZA

• Euskaraz dakien pertsona behar da ekainean eta uztaitlean ume bat zaintzeko.

685750083 (20:00etatik aurrera)

• Kamareroa behar da.

943 74 16 00

• Durangoko Berbaro Euskara Elkartek udalekuetarako aisialdiko begiraleak eta zuzendariak behar ditu. Uztailerako.

94 620 19 18 (Rakel)

• Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko.

943 74 14 61

• Kamareroak eta sukaldariak behar dira tabernan lan egiteko.

652 778 260 /

652 77 82 10

• Kamareroa behar da tabernako.

943 74 12 30



• Eibarko enpresak garabirako langilea behar du.

Erref. 162006006695

• Urola Kostaldeko enpresak banatzailea behar du.

Erref. 162006006586

• Zarauzko enpresak pintorea behar du.

Erref. 162006005444

• Eibarko enpresak kamareroa behar du.

Erref. 162006005993

• Azkoitiko enpresak artezteko makinako operadorea behar du.

162006004915

• Mendaroko enpresak tomurako langilea behar du.

Erref. 162006006605

• Bergarako enpresak kamioiko garabiko gidaria behar du.

Erref. 162006004926

• Oñatiko enpresak arotza behar du.

Erref. 162006000403

• Gipuzkoako enpresak inkestazaleak behar ditu.

Erref. 162006006124

• Arrasateko enpresak giza baliabideetako irakaslea behar du.

Erref. 162006006396

• Azpeitiko enpresak etxez-etekeo laguntzailea behar du.

Erref. 162006002195

• Gipuzkoako enpresak igerilekurrako soroslea behar du.

Erref. 162006006442

• Azpeitiko enpresak fresatzeko makinarako langilea behar du.

Erref. 162006006407

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentrura deitu: **IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• 1951koen kinto bazkaria ekainaren 17an izango da Sigma jartetxean. Interesatuek 60 euro sartu ondorengo kontu korrontean **3035 0007 260071037383** ekainaren 5erako.

• Klarineta galdu dut. Maleta eta guzti. Plaza inguruan.

943 74 10 77 -

943 74 17 43

[ZORIONAK]



▶ Zorionak zure 47. urtebetzean. Emazte eta bereziki, iloba Miriam, Ainara eta Unairen partez.



▶ Zorionak aitxixa **Jose Mari** domekan urteak egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Ane eta Mariaren partez.



▶ Zorionak **Aritz** zure lehenengo urtebetzean. Ama, aita eta Mikelen partez.




▶ Zorionak **Oier** bihar 6 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat Unai, Leire eta etxekoan partez. Ondo pasa zure egunean!



▶ Zorionak **Aitor** aitona-amonen eta familiako guztien partez.



▶ Zorionak amatxo **Adelil** Laster harrapatuko zaitut! Naroa, aitona-amonen eta familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Jokin Ariola** gaur 8 urte egin dituzulako. Etxekoan partez.



▶ Zorionak **Sara** maiatzaren 28an 7 urte beteko dituzulako. Guraso eta ahizparen partez.



▶ Zorionak **Naroa** domekan 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Gabielen partez.



▶ Zorionak **Manoli** atzo urteak egin zenituelako. Julene, Olaia eta familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Amaia** atzo 10 urte egin zenituelako. Etxekoan, Edurmeren eta bereziki, Josuren partez.




▶ Zorionak **Tamara** hilaren 24an 10 urte egin zituelako. Izeba Petri, lehengusu, guraso, aitxixa eta Aidaren partez.



▶ Zorionak **Elsa** hilaren 23an 7 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Gorka** lzure anai eta gurasoen partez.



▶ Zorionak **Jon Landa** igandean 5 urte egingo dituzulako. Amaren eta aitaren partez.



▶ Zorionak **Peru**, gure 6 urteko gizonari.



▶ Zorionak **Julen Arregi** domeka honetan 1. junartzea egingo duela. Etxekoan eta bereziki, Anderren partez.



▶ Zorionak **Anton** maiatzaren 29an 4 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, Mikelen partez.



▶ Zorionak **Nahia** atzo 2 urte egin zenituelako, guraso eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Haizea** astelehenean 7 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.



▶ Eskerik asko 7 urte hauengatik.



▶ **Loli** eta **Felix**, 50 urte elkarrekin... eta segi aurrera... tralera, tralera... Zorionak!



▶ Zorionak **hirukote** zuen urtebetzeetan. Etxekoan, eta batez ere, amatxoren partez.



▶ Azkenean iritsi da! Oso ondo pasa zuen ezkontza egunean. Familiako guztien partez.



[OKINDEGIA]



28 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

- | | |
|---|---|
| <p>26 Yudego
27 Zabaleta
<i>(* Goizez Erosario, Santa Ana)</i></p> <p>28 Zabaleta
29 Etxeberria (Erosario)
30 Ibañez
31 Bidasolo
1 Etxeberria (Santa Ana)
2 Fernandez</p> <p><i>* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.</i></p> | <p>GUARDIA 24 ORDUZ</p> <p>KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38</p> <p>FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42</p> <p>ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84</p> |
|---|---|



ARMERIA ESKOLA

Goi Mailako L.H.ko Berariatzko Institutoa
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44
www.armeriaeskola.com / secretario@armeriaeskola.com

2006/2007 IKASTURTEA

HEZKUNTZA ESKAINTZA

"A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)

BATXILERGOA
ERDI MAILAKO
ZIKLOAK
GOI MAILAKO
ZIKLOAK

TEKNOLOGIKOA
MEKANIZAZIOA
EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK
PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA
MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA
TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK
ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK

IZENA EMATEKO:

Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 1etik 7ra (biak barne).
Matrikulazioa ekainaren 30etik uztailaren 6ra.
Batxilergo Teknologikoan matrikulatzeko, ekainaren 30etik uztailaren 6ra.

Baita ere Zikloen eskaintza partziala eta sarrera-frogaren prestakuntza



[26 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urteik 6 urtera bitarteko haurrentzat (euria bada, hurrengo barixakura atzeratuko litzateke)
Plaza Handian

19:00 DBH 4KO IKASLEEN AGUR JAIA

Pilar Ikastetxean

19:00 SAHARA ARGAZKI

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Egilea: Iñaki Bergara
Kultur Etxean
Ekainaren 10era arte

[27 ZAPATUA]

11:00 PILAR IKASTETXEKO GURASOEN EGUNA

Pilar Ikastetxean

[28 DOMEKIA]

10:30 XXVI. ELGOIBARKO HIRIA SARIA TXIRRINDULARI LASTERKETA

Irteera: Plaza Handitik
Helmuga: Santa Klara kalean
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

[30 MARTITZENA]

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan
Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean ordu eta toki berean izango dira kontzertuak.

[1 EGUENA]

18:30 IMHKO HEZIKETA ZIKLOETAKO ATE IREKIEN EGUNA

Informazio saioa
IMHko Areto Nagusian

9:30 DONATO GOYENECHETA XABIER ARAKAMA: TRIKITIXA ETA PERKUSIO BIKOTEA

Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: Kutxa

[2 BARIKAKUA]

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian

22:00 IOSUNE BEREZIARTUA ESKALATZAILEAREN IKUS ENTZUNEZKOA

"Iosuneren momenturik onenak"
Musika Eskolako auditorioan
Antoolatzailea: Kutxa, Morkaiko

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Mision Imposible 3»

26, barixakua: 22:15
27, zapatua: 19:30-22:15
28, domekia: 19:30-22:15
29, astelehena: 21:30
«Volver»
2, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«X-Men 3»

26, barixakua: 19:30-22:15
27, zapatua: 17:00-19:30-22:15
28, domekia: 17:00-19:30-22:15
29, astelehena: 19:30-22:15
30, martitzena: 19:30-22:15
31, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Un franco, 14 pesetas»

19, barixakua: 19:30-22:15
20, zapatua: 17:00-19:30-22:15
21, domekia: 17:00-19:30-22:15
22, astelehena: 19:30-22:15
23, martitzena: 19:30-22:15
24, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



«Mision imposible 3»

Zuzendaria: J.J. Abrams.

Antzezleak: Tom Cruise, Ph. Seymour Hoffman.

Etahn Hunt agente sekretuak aurkari berria izango du oraingoan. Historian egon den gaizkilerik handiena izango du aurrez aurre ezinezkoak diruditen misioak aurrera ateratzeko abilezia aparta duen agenteak: Owen Davian (Seymour Hoffman) armak eta isilpeko informazio garrantzitsua prezio onena eskaintzen dionari saltzeko kontzientzia arazorik ez daukan morroia da. Telebista mundutik datorren ("Alias", "Perdidos", "Felicity"...). J.J. Abrams zuzendariak akzioa eta drama uztartu ditu Tom Cruise ekoizle den filmean.

Atzera hegira



1976. urteko abuztuaren 1ean ateratako erretratu zahar hau **Kontxa Azkuek** lagatakoa da. Azkue familiak San Pedrorra egin zuen txango batean Moru mendian (bertako buzoia ageri da) ateratako argazkia da. Bultaco markako motor gainean ageri diren hiru gazte hauek eskuetan daramaten ikurriña bertan topatu zutela azaldu digute. Garai hartan, 1976az ari gara, ikurriña legeztatu gabe ei zegoen oraindik, baina egun hartako oroigarri bikaina izango zela argazki hura pentsatu zuten. Pentsatu eta egin. Nork esango zien urte batzuk berandua-go argazki hura **BARREN**en agertuko zenik, ezta? Gidaria **Jose Miguel Amóstegui** da eta bere atzean eserita ageri direnak bere lehengusuak dira: **Jose Mari Kortabarria** (erdian) eta **Julian Iriondo**.



Pintxoetan sukera zabalde

13. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater kombina-**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

ikastaro trinkoak uztailean

izen ematea: ekainaren 23a baino lehen



ILS
HIZKUNTZ
SOLUZIOAK

alemanez,
frantsesez,
ingelesez,
eta italianoz
(mota guztiak)

uztailaren
3tik 28ra
(goizez eta
amatealdoz)

60 ordu
taldeko

Informazioa:
tel. 943 744040
faxa 943 741654
e-mail: ils@ils.es
www.ils.es



ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2006/07 IKASTURTEA

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika
Karrozeria, txapa eta pintura
Merkataritza
Erizaintza laguntza osagarriak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa
Administrazioa eta finantzak

Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 7ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuena, enpresa simulatuak, lan praktikak Europan, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, **opariak** eta deskontuak.
4. Promozioetan **abantailak**



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**